

telebista ♦ irratia

Joseba Egibar eta Arnaldo Otegi aurrez aurre ETBn

Jaime Otamendik zuzendutako saio berezia eskainiko du gaur ETB1ek, 21:15ean

Erredakzioa / Donostia

ETB1ek saio berezia eskainiko du gaur, *Gaur egun* albistegiaren ondoren. Saioan Jaime Otamendik EAJko bozeramaile Joseba Egibar eta EHko Arnaldo Otegi izango ditu mintzaide aktualitate politikoko hainbat gai jorratzeko. Besteak beste, bi alderdi politikoen arteko harremana, Lizarra-Garazi Akordioa egun zertan den, ETAre azken atentatuak eta martxoaren 12ko Espainiako hauteskundeak izango dituzte hizpide.

EUSKAL TELEBISTAK saio berezia eskainiko du gaur bere lehenbiziko katean, 21:15etan. Jaime Otamendik zuzenduta, Joseba Egibar eta Arnaldo Otegi izango dira saioan, aktualitazeko hainbat gairen gainean solasteko.

Gaur Egun albistegia finituta hasiko da saioa, eta hiru ordu laurdenetan Euskal Telebistako albistegieta-ko buru Jaime Otamendik, bere bi gonbidatuekin, puripurian diren gaien errepa-



XOUSE SIMAL



EGUNKARIA

Joseba Egibar EAJko bozeramaileak (ezkerrean) eta Arnaldo Otegi EHkoak (eskuinean) Euskal Herriak bizi duen egoera politikoa izango dute hizpide Jaime Otamendik gidatutako saio berezian, gaur, ETBn.

soa egingo du. Elkarriketa mamitsua eta interesgarria izango da, inondik ere, EAJ eta EH alderdietako bozeramaileen artekoa. Bi alderdion arteko egungo harremana, ETAre azken atentatuak eta martxoaren 12ko Espainiako hauteskunde orokorren ondorioek pisu handia izango dute saioan

barrena hitz egingo diren gaietan.

Gisa berean, Juan Jose Ibarretxe EAEko lehendakariak EHrekin akordioa hautsi izanak izango du zeresanik ere buruz buruko elkarriketan. ETAre su-etena eta Lizarra-Garaziko Akordioak EAJren eta EHren arteko kolaborazioa

erraztu bazuen ere, ETak su-etena hautsi izanak bi alderdion arteko harremana hoztu egin du.

Joseba Egibarrek eta Arnaldo Otegiak Euskal Herriak bizi duen egoerari buruz beren alderdietako iritziak azalduko dituzte, baita bakea erdiesteko baldintzak eta aterabideak ere.

txoritxoari mokoka

♦ Ines Intxausti

Tarzan New Yorken

SEGURASKI Hollywoodek bere historian zehar ospatu dituen Oscarren ekitaldien artean makina bat agerraldi antologiko gogoratuko dira. Ahaztezi-zen artean bikain bat azpimarratuko dut: Fernando Truebak egindakoa. Bi esaldikoa izan zen. Borobila. Perfektua. Ez du Jainkoagan sinesten, Billy Wilderren gan baizik. Horregatik, hari eskaini zion Oscarra. Fina. Halako metaomenaldirako Wilderren izena aukeratzea ariketa inteligentea da Hollywood den aintzira mitomaniakoan. Austriatik joandako komediaren aita magistrala —eta judutarra, noski— aipatzean auditoriuma belauniko jarri zuen Truebak. *A touch of class* eman zion bere sariari *Belle époque* filma zuzendu zuen gizon zuhurrak. Hori bai, gerora ez du ezer nabarmenezkorik egin, zinemagintzan bere arrakastaren zilborreste ona-

nistan *itto* balitz bezala. Dirudienez, madarikazioa baino gehiago sena omen da Oscarra jaso eta gero gertatzen dena. Burua puzten da haizez, eta ondoren ez zaizu ezer gehiago kabitzen barnean.

Almodovarrek, ordea, ateismolatria horretatik ihes egiteko, toreroarena egi-ten igo zen *pavillion*-eko agertokira. Etxetik kanpoko diskurtso ulertezina, kaotikoa, arrunta eta akonplexatuegia atera zitzaion, ez dakigu nondik. Une hartan bere burmuina gazta mantxegoa bihurtuta azaldu zen Pedrito. Hori bera den munduko mitomanoa bere Olinpo partikularra ukitu duelako. Penelope Cruzen garrasi histerikoarekin hasi zen delirioa. «Pedroooooo...» oihukatu zue-
nean, Banderasek «Heidi...» esatea

besterik ez zuen falta. Baina Malagako melaninoena bere herritik etorritako senideak ekitaldi erdian txapela belarrietaraino sartua eta urdaiazpiko batekin agertu izan balira bezala lotsatu zen. Azkenean, Pedoren eskerrak, paper eta guztiarekin, film laburrek jasotzen dituztenak baino luzeagoa bilakatu zen. Eta telebista guztiek, memento batez unibertsoa geldirik balego bezala, Oscarrez busti zituzten informatiboak. ETBkoak are urrunago joan ziren kataklismo horretan. Indurainek Tourra irabazi zuenean Atarrabiara kamerak sartu zituzten bezala, Calzadas de Calatravara eraman zuten albistea. Komentariorik gabeko irudietan, taberna batean bildutako herritar batzuen zaratak loteriako edota bertako futbol taldearen igoeraren ospakizunenak izan zitezkeen. Komentariorik gabe.

laburrean

Arabako kirolaririk onenen sariak banatuko ditu gaur Radio Vitoriak

Gasteizko Radio Vitoriak Arabako kirolaririk onenen sariak banatuko ditu Gasteizko antzoki nagusian, 19:30etan, eta saio berezia eskainiko du XV. Arabako Kirolaren Jaialdiaren inguruan. Aurten ehun mila boz jaso dira, eta 1999ko kirolaririk onena Martin Fiz aukeratu dute arabarrak, Juanito Oiarzabal, Julio Salinas, Igor Gonzalez de Galdeano eta Juan Alberto Espilen aurretik.

Finlandiako ekoizpenak 'Metrópolis' saioan

Espainiako La2 kateko *Metrópolis* saioak Finlandiako ikus-entzunezko ekoizpenaren aktualitateri begirada bat botako dio gaur, goizaldeko 01:00etatik aitzina. Bertan, Rea Pihlasviita eta Kimmo Koskelaren *Varldens hamnd* (*Munduaren mendekua*), Harri Larjostoren *Water stories*. Kimmo Koskelaren *Still not there*, Juha Maki-Jussilaren *Telescope* eta Roi Vaararen *Artist's dilemma* film laburrak eskainiko dira. Komunikazioa, identitate sexuala edota bikote harremanak dira natura eszenatokitizat hartzen duten artista horien ohiko gaiak.

Euken Ostolaza tenorea 'Sorginen laratza' saioan

ETB1eko *Sorginen laratza* saioan Eukene Ostolaza tenore donostiarra izango da. Aspaliditik Parisen bizi da Ostolaza, eta bere ibilbide artistikoa izango dute hizpide saioan, opera eta hainbat gairekin batera. Orobat, Ostolazaren ahotsa zuzenean entzuteko parada izango da. Ondoren, Coruña (Galizia) Patriqueira taldeak bestelako doinuak ekarriko dizkigu.

Pilotarien eskuko lesioak 'Forum' saioan

ETB2ko *Forum* saioan David Barberok Ander Letamendia doktorea gonbidatuko du, pilotariek eskue-
tan izaten dituzten lesioez mintzatzeko, 10:00etan.